

EUSKAL-ERRIA

BERE OITURA, USANZA ETA LIBERTADE ZARRAK

Donibaneko Euskal-festetan Oorerko leen aipamena kantu auk eman dituenari

AZALKAYA: Euskal-erri maiteari.

Asiera

¿Nun arkituko det nik lira bat
Orain gogoz kantatzeko?
¿Nun arkituko, Euskal-erriko
Gloriak alabatzeko,
Bere oitura ta libertadien
Gañean itzegiteko?
¿Nun, bada, nun det nik arkituko
Lan au pozez egiteko?

¿Arkituko det lira eder au
Chorichoen kantuetan?
¿Arkituko det larrosachoen
Orri gorri gorrietan?
¿Arkituko det intz goiztarraren
Perla dizdizarietan,
Bestela berriz Euskal-errian
Ditugun kantu ederretan?

¡A! baditugu bai Euskaldunak
Chorichoak arboletan,
Bai eta ere larrosachoak

Intzez beteak, menditan;
Kantu ederrak aditzen dira
Gure baserrichoetan;
Bañan badegu beste gauza bat
Bai gure kondairaetan.

Badakizute zer gauza dan au
Guk euskaldunak deguna,
Gure biotzak, Euskal-lurrean
Geyena maitatzen duna?
Gernikan degun aritz santuba
Gure gauzetan maitena,
¿Au ez da, bada, Euskal-erriko
Gauzetan, onen onena?

Aritz chit santu onen azpian
Nai det nik orain kantatu,
Zergatik bere osto ederretan
Lira au detan arkitu;
Eta onela nere kantua
Pozez, bai, det nik moldatu,
Arbol santuko itzal gozoak
Diradelako lagundu.

Zeruko musa garbi garbiak
 Lagun ¡bai! neri kantatzen,
 Euskal-erriko libertadeak
 Ote ditugun ekartzen;
 Gernikan degun aritz santuba
 Beti ote dan bizitzen;
 Gure barrengo odolarekin
 Bestela degun alchatzen.

I

Jai egunean

Loreak bere orriya
 Dauka ititez chit bustiya;
 Kabi-chuloan pozez beterik
 Kantatzen ai da choriya;
 Bildocha dago alaiya;
 Pozturik guzti guztiya.

Eleizachoko dorrean
 Ezkillak jo du goizean,
 Nekazariya mezara dator
 Ezkill soñuba aditzean,
 Alai dago biotzean
 Kanpo ederra ikustean.

Eleizachoa sarturik,
 Jaunari erreguturik,
 Meza santuba bukatutzean
 Eleizatik aterarik,
 Mendi bidea arturik
 Dijoa oso pozturik.

.

Euskal-errian beti izan da
 Eta izango fedia,
 ¿Onela nola ez da biziko

Pakean ango jendia?
 Fede santuba, fede santuba!
 Gure biotzetan gordia,
 Iduki zazu zure eskutik
 Gure ama Euskal-erria.

II

Euskal-erriko dantzak

Erri chiki bateko
 Plaza politian,
 Dantzan ai da jendea
 Umore onian;
Aurrekua dantzatzen
 Plazaren erdian
 Ai dira; eta poza
 Daukat biotzian,
 Dantzatzen ikustean
 Osoro pakian.

Eguna badijoa
 Bukatzen... bukatzen
 Ta berriz eguzkiya
 Illuntzen... illuntzen;
 Illargiya zeruban
 Bakarrik da ikusten,
 Gabapiskabanaka
 Asi da etortzen,
 Eta eleizachoko
 Ezkillak du jotzen.

Dantzan ai zan jendeak
 Ezkilla aditzian
 Gau beltza datorrela
 Berak pensatzian,
 Ta illargiya zeruban
 Triste ikustian,

Guztiyak dijoaz bai
 Ezkilla isiltzian,
 Ta plaza gelditzen da
 Bakartasunian.

.

Euskal-erriko dantza soñubak

¿Zeñi ez zaizka gustatzen?

Euskal erriko oitura zarrak

¿Zeñek ez ditu maitatzen?

Oitura eta usanza oek

Baditugu guk ikusten,

¿Nola gintezke erri maitean

Ez egon beti pensatzen?

III

Gabon

***Alaia eta tristea; edo, baserrietan eta
 arrantzialien echeetan.***

Elur zuriyak estaltzen ditu

Mendi, Laso ta zelaiyak,

Triste kantari, adarrez-adar,

Ai dira chori chikiyak,

Baserritako sukaldietan

Berotzen nekazariyak,

Salechietan gorderik daude,

Otzez beterik, ardiyak.

Gabon gaba da; gabon gaba da

Kantatzen dute mendiyen:

Kant'ori bera jende guztiyak

Pozez beterik, erriyan;

Aditzen ez da beste gauzarik

Etchetako atariyan:

«Poztu gaitezen, gabon gaba da»

Eranzuten baserriyan.

¿Zer pozgarriya dan ikustea

Elkarturik familiya,

Egiten denak, pozez beterik,

Gau artako afariya!

An ikusten da amonachoa

Alaiturikan guztiya,

Dadukalarik bere ondoan

Billobacho chit eztiya.

Dana poza da gabon gabean

Euskal-erriko menditan,

Baso-tartean ezkutaturik

Diran baserrihoetan;

Ez da ikusten batere penik

Eche geyen geyetan;

Bañan, ¿nork daki ote dagon, bai,

Orduban norbait penetan?

Aditzen ditut, penaz beterik,

Alargun baten negarrak,

Bere ondoan gordetzen diran

Umechoen deadarrak;

Aditzen ditut, denbora berez,

Itsas soñu chit gogorrak;

Ikara sartzan digu barrenen

Turmoi gogorren dardarrak.

¿Nundikan dator, orren mintsua,

Alargun aren negarra?

¿Nundikan dator ume gaiñoak

Egiten duten deadarra?

¿Nundikan dator, itsas aldetik

Alako marru gogorra?

¿Eta nundikan ikaragarri

Turmoi gogorren dardarra?

Alargun gaiño arentzat ez da

Gau artan pena baizikan;

Bere biotzeko senar maitea
 Goizean aterarikan,
 Arratsaldean bere portuko
 Bidea, bai, arturikan,
 Ito zan bada, bere umeak
 Miseriyan lagarikan.

Miseri oek ikusirikan
 ¿Nork ez du negar egiten?
 Alargun aren tristetasuna
 Baldin badegu ikusten,
 ¿Nola ez diogu, oso gogotik
 Bere penetan laguntzen?
 Karidadeaz, jende guztiyak
 Orain erruki gaitezen.

.

Alaitasuna, baserrichoan
 Degu pozez guk ikusten,
 Aur ayen penak ikusirikan
 Tristuraz gera betetzen,
 Alargunaren negar samiñak
 Oso gaitu gu penatzen;
 Mundu ontako gauzak dirade
 Beti onela gertatzen.

IV

Euskal-erriko Kantuak

Euskal-erri daneko
 Baserrichoetan
 Kantu zarrak dirade
 Kantatzen gabetan;
 Poz aundia daukagu
 Gure biotzetan.
 Kantu oek aitzean
 Gure mendietan.

¿Zeñek ez dauka poza
 Oek aditzián?
 ¿Zeñek malkoa ez dauka
 Aitona ikustian,
 Kantatzen gogotikan
 Bere baserrian?

.

¡Pakea bear bada
 Dago Euskalerrian!

¿Zeñek ez du sentitzen
 Zerbait biotzian,
 Ama batek aurrari
 Gogoz kantatzián,
Lo, lo nere maitea,
 Berari esatian?

¿Malko gabe zein dago
 Au adituzián?

Kantatu ditut Euskal-erriko
 Oiturak, pozez beterik,
 Nere sort-erri chit maitearen
 Gloriak gogoraturik;
 Euskal-erriko oitura oek
 Guk guztiok ikusirik,
 ¿Zein ateratzen da pena gabe
 Bere sort-erri maitetik?

Euskal-erriko Lidertade zarrak

Euskal-erriko libertadeak
 Nai nituke nik kantatu,
 Nere sort-erri chit maitearen
 Gloriak oso alchatu;
 Galdu dirala libertadeak
 Pensaturik naiz penatu,
 Foru santubak gogoratzian
 Osoro naiz ni tristetu.

Baserrichoko agurechoa
 lkusten det sukaldean,
 Idukirikan billobachoa
 Bai, bere aldamenean;
 Onek gogotik Euskal-erriko
 Gloriak kantatutzean,
 Malkoa zait, bai, nere begitik,
 Erori, oni aditzean.

«Euskal-errian libre gerade
 Ta gera beti izango,
 Zergatik gure libertadeak
 Beti ditugun maiteko...»
 Esaten zuben aitonachoa:
 «...Oek ez dira kenduko,
 Gure odola lenago degu
 Pozez, bai, guk isuriko...»

«...Euskal-errian dira bi aritz
 Ipiñiak Jaungoikuak,
 Gernikan eta Ustaritzen, bai,
 Aspalditik alchatuak;
 Aritz oetzaz gogoratuzian
 Erortzen zaizkit malkuak,
 Zergatik diran bi arbol oek
 Biotzetik maitatuak...»

Aitonachoak pozez beterik
 Ause zuben bai kantatzen,
 Nere begiyak, au aditzian,
 Malkoa zuben isurtzen;
 Nere biotza piskabanaka
 Dijoa penaz sufritzen,
 Ezin nezake denbora askoan
 Segitu, ez, nik kantatzen.

¡Libertadeak! ¡libertadeak!
 ¿Nun zaudete, nun, gorderik?

¡Foru santubak! ¡foru santubak!
 ¿Nun, bai, nun ezkutaturik?
 ¿Nun dira arkitzen Euskal-erriko
 Lege santubak azturik,
 dukirikan Euskal-erriko
 Semeak, onen tristerik?

Galdu ziraden, galdu ziraden,
 Bai gure libertadiak,
 Nork daki noiztik, gordetzen ziran
 Euskal-erriko legiak;
 Galdu ziraden *foruak* eta
 Gure usantza guztiak,
 Ez gera egongo Euskaldun denak
 Orain osoro tristiak?

Euskaldun denak elkar gaitezen
 Lege zarrak ekartzeko,
 Beren laguntza gozoarekin
 Oso libre bizitzeko;
 Geroago ta biziago
 Sort-erria maitatzeko,
 Eta onela, beti ta beti,
 Oso doatsu izateko.

Bukaera

Kantatu det nik, aritz zar maite
 Anziñakoen azpian,
 Euskal-erriko oitura eta
 Libertadien gañian;
 Kantatu det nik gure aitonen
 Lur santu oso maitian
 Mundu erotik iges egiñik
 Chori ta lore tartian.

¿Zeñek ez ditu gogoz maitatzen
 Kabi-chuloko choriyak?

¿Usai gozoa zabaltzen duten
 Larrosachoen orriyak?
 ¿Zeñek ez ditu pozez beterik
 Ikusten gure mendiyak?
 ¿Zer gauza eder maitagarriak
 Dituen Euskal-erriyak!

Lore, zelaicho, baso ta mendi,
 Asko zaituztet maitatzen,
 Zergatik nere erri maitean
 Zeraten zubek ikusten;
 Euskaldun danak zuen aldean
 Gozo gerade bizitzen;
 Zuen ondotik atera ezkeru,
 ¿Zeñek ez du pena artzen?

Euskal-erriko oitura zarrak

Saya gaitezen gordetzen,
 Gure aitonen lege santuban
 Ote geraden bizitzen;
 Chit anziñako libertadeak
 Ote ditugun ekartzten,
 Eta onela bizi guztian
 Doatsu geran izaten.

¡Euskal-erria! ¡Euskal-erria!
 Nere sort-erri maitea,
 Nere lan dena da ta izango da
 Zu beti maitatutzea;
 Libertade ta lege zarrakin
 Pakean zu ikustea
 Onetarako gure partetik
 Lana gogoz egitea.

Finis coronat opus.

BONIFAZIO ECHEGARAY.

COMISIÓN DE MONUMENTOS DE GUIPÚZCOA

Bajo la presidencia del Sr. Añibarro, y con asistencia de los señores O'Reilly, Uriarte, Pavía, Marqués de Seoane, Soraluze y Arzác (secretario), celebró su sesión mensual ordinaria, á las cuatro de la tarde, el viernes 31 de Agosto.

Fué leida y aprobada el acta de la sesión anterior de 23 de Julio pasado.

Se trató confidencialmente de dos asuntos histórico-arqueológicos relativos á esta ciudad.

El señor Marqués de Seoane regaló un medallón de bronce, representando el busto del insigne almirante Churruca.

Se recibieron igualmente con gratitud, los donativos de obras hechos por el señor Arzobispo de Santiago de Cuba; por Mr. Barthéty, de Pau; Ayuntamiento de San Sebastián, D. Miguel Ostolaza, D. Ven-